den urteko urtarrilaren 1a baino lehenagotik Euskal Autonomia Erkidegoko edozein udalerritan bizi direla egiaztatzen badute».

XEDAPEN GEHIGARRIA

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean hartuko du indarra dekretu honek.

Vitoria-Gasteizen, 2006ko urtarrilaren 10ean.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburua,
JAVIER MADRAZO LAVÍN.

administrativa en cualquiera de los municipios de la Comunidad Autónoma del País Vasco con anterioridad al 1 de enero del ejercicio en el que se realiza la convocatoria».

DISPOSICIÓN ADICIONAL

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 10 de enero de 2006.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

El Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales,
JAVIER MADRAZO LAVÍN.

## EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

## 228

ERABAKIA, 2005eko abenduaren 19koa, Euskal Herriko Unibertsitatearen Gizarte Kontseiluarena, Ikasleek EHUn Irauteko Arauak onartzeko dena.

María Pilar Elorrieta Santos, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearen Gizarte Kontseiluaren Idazkari Nagusia, naizen honek ondokoa

ZIURTATUKO DUT:

Gizarte Kontseiluaren Osoko Bilkurak, bere ehun eta laugarren bileran, bi mila eta bosteko abenduaren hemeretzian, jarraian ageri duen erabakia onetsi du, Aztergaien Zerrendako bigarren gaiari buruz (Iraupenaren Arautegia.):

«Ikasleek EHUn irauteko arauak Gizarte Kontseiluko Osoko Bilkurak onetsi zituen 1993ko uztailaren 8an. Onespen hori eman zenetik gutxi gorabehera hamabi urte igaro dira, eta Unibertsitateko Gobernu Kontseiluak, otsailaren 25eko 3/2004 Legeko 70.d artikuluan eta EHUko indarreko Estatutuen 119. artikuluan egiletsitako eskumenen egikaritzan, Iraunkortasunarauen inguruko legeria berria eratzeko izapideak egiteari ekin zion, betiere Unibertsitateko Erkidegoak Euskadiko Autonomia Erkidegoari begira gaur egun azaltzen dituen inguruabar berriei egokituta. Ikasleen Batzordeak egindako testuari buruzko informazioa eman ondoren, eta Ikasketen Azpibatzordeak horren alde emandako txostenarekin batera, Gobernu Kontseiluak, apirilaren 27an, testu horren aldeko adierazpena

## UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO

## 228

ACUERDO de 19 de diciembre de 2005, del Consejo Social de la Universidad del País Vasco, por el que se aprueba la Normativa de Permanencia del Alumnado en la UPV/EHU.

María Pilar Elorrieta Santos, Secretaria General del Consejo Social de la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea,

CERTIFICA:

Que el Pleno del Consejo Social en su sesión centésimo cuarta celebrada el diecinueve de diciembre de dos mil cinco adoptó el acuerdo siguiente en relación con el punto dos del Orden del Día. Normativa de Permanencia:

«Las Normas de Permanencia en la UPV/EHU vigentes fueron aprobadas por acuerdo del Pleno del Consejo Social en fecha 8 de julio de 1993. Transcurridos cerca de doce años de dicha aprobación, el Consejo de Gobierno de la Universidad, en ejercicio de las competencias que le otorgan el artículo 70.d de la Ley 3/2004, de 25 de febrero, y el artículo 119 de los Estatutos de la UPV/EHU vigentes, inició los trámites para la elaboración de una nueva regulación de las Normas de Permanencia adecuadas a las nuevas circunstancias que presenta hoy la Comunidad Universitaria en la Comunidad Autónoma de Euskadi. Una vez informado por el Consejo de Estudiantes el texto elaborado y con el informe favorable de la Subcomisión Académica, el Consejo de Gobierno, en sesión de 27 de abril último, acor-

egiteko erabakia hartu zuen, bai eta Gizarte Kontseiluari horren izapideak egin eta onestekoa ere. Halaber, behin erabakia hartzen hasita eta testu arautzaile berria Gizarte Kontseiluari igorrita, bertako osoko bilkurak, joan den ekainaren 1ean, proposatutako testua onesteko erabakia hartu zuen, baina aldaketa formal batzuekin; horrez gain, Unibertsitateko Koordinazio Kontseiluaren txostenaren mende jarriko da, abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoaren 46.3 artikuluan eta indarrean dagoen Gizarte Kontseiluko erregelamenduaren 5.4 artikuluan ezarritakoari helduta.

Gobernu Kontseiluak azaldutako arrazoibideen ildotik, gaur egungo ikasketen egitura dela medio, beharrezkoa da Iraunkortasunari buruzko arauketa finkatuta egotea; izatez, 94ko eraldaketaren ondorioz, bigarren zikloko tituluak bakarrik agertzen dira, ikasleen mugigarritasuna errazten da titulu eta ziklo ezberdinen barruan, bigarren zikloetan parte hartzeko aukerak zabaldu dira eta ikasle-kopurua murriztu da.

Iraunkortasunari buruzko arauketa berria dela bide, ikasleek ikasketen inguruan bete beharreko zenbait betekizun zehaztu dira; hala ere, horiek betetzen ez badira, ez du esan nahi titulutik edo unibertsitatetik behin betiko kanporatuko direnik. Berrikuntza horren arabera, bi urteko zehapena bete ondoren, kanporatutako ikaslea titulu berean edo unibertsitate bereko beste titulu batean parte har dezake. Gainera, beste bi berrikuntza aurkeztu dira: bata, behar dituzten kredituen % 30 edozein ikasturtetako irakasgaienak izan daitezke (aukera askeko gaiak salbuetsita); bestetik, deialdi bati uko egin ahal izateko nahikoa izango da azterketara ez agertzea.

Unibertsitateko Koordinazio Kontseiluak horren alde emandako txostena aurreko uztailaren 14an testuaren paragrafo baten kokapenari buruzko oharra bertan jaso ostean, Iraunkortasunari buruzko arauketa hau onetsi da:

*1. artikulua.*– EHUn matrikulatzen diren ikasleen kasuan, ikasketen inguruko betekizunak.

1.– EHUn lehenengo aldiz matrikulatzen diren ikasleen kasuan, ikasketen inguruko betekizun batzuk eskatzen dira:

Lehenengo ikasturtean dauden ikasleak bertan agertzen diren irakasgai guztietan matrikulatu beharko dira, salbu eta bigarren zikloko tituluetan, eta, gutxienez, deialdi arruntak eta aparteko deialdiak kontuan izanda, lehenengo ikasturteko ikastorduen % 15 gainditu beharko dituzte, kredituetan zenbatuta.

Gisa berean, matrikularen bigarren urtearen amaieran, ikasleek, aukera askeko kredituak salbuetsita, gutxienez, lehenengo ikasturteko ikastorduen % 30 gainditu behar dute, kredituetan zenbatuta.

2.– Aurreko paragrafoan ezarritako betekizunak betetzen ez badira, ikasketa horiek egin ahal izango di-

dó informar favorablemente el expresado texto y proponer al Consejo Social la tramitación y aprobación del mismo. Remitido el acuerdo indicado y el nuevo texto regulador al Consejo Social, el Pleno del mismo, en sesión de 1 de junio pasado, acordó la aprobación del texto propuesto con leves modificaciones formales y someterlo a informe del Consejo de Coordinación Universitaria de conformidad con el artículo 46.3 de la Ley Orgánica 6/2001, de 21 de diciembre, y en el artículo 5.4 del vigente reglamento del Consejo Social.

Siguiendo el razonamiento del Consejo de Gobierno, esta nueva Normativa de Permanencia se justifica por la necesidad de tener en cuenta la estructura académica actual, (en la que con la implantación de la reforma del 94, aparecen titulaciones de sólo segundo ciclo, facilita la movilidad del alumnado entre diferentes titulaciones y ciclos de enseñanza, amplía el abanico de posibilidades de acceso a los segundos ciclos) y la disminución del número de estudiantes.

La nueva Normativa de Permanencia establece unas exigencias académicas que el alumnado debe cumplir, pero con la previsión de que este incumplimiento no suponga una expulsión definitiva de la titulación o de la universidad. Esta es una novedad con la que se prevé que tras dos años de sanción, el estudiante expulsado se pueda incorporar a la misma titulación o a otra titulación de la propia universidad. Otras dos novedades de alcance que se incorporan son: que el 30% de los créditos que el estudiante tiene que superar el segundo año de matrícula, puede ser de asignaturas de cualquier curso, excluidas las de libre elección. La segunda novedad es que la renuncia al examen, es decir, el no presentado, no contabiliza convocatoria consumida.

Recibido el informe favorable del Consejo de Coordinación Universitaria el 14 de julio precedente con una leve observación acerca de la ubicación de un párrafo del texto, que se incorpora al mismo, se aprueba la siguiente Normativa de Permanencia:

*Artículo 1.*– Requisitos académicos exigibles al Alumnado que se matricula en la UPV/EHU.

1.– Requisitos académicos exigibles al alumnado que se matricule por primera vez en la UPV/EHU:

El alumnado de primer curso deberá matricularse de todas las asignaturas que integran el mismo, excepto en titulaciones de sólo 2.º ciclo, y deberá aprobar, como mínimo, entre las convocatorias ordinaria y extraordinaria, el 15% de la carga lectiva de primer curso, medida en créditos.

Asimismo, al final del segundo año de matrícula, el alumnado deberá tener aprobado, excluidos los créditos de libre elección, como mínimo el equivalente en créditos al 30% de la carga lectiva del primer curso.

2.– Si no cumple los requisitos establecidos en el apartado anterior, sólo podrá proseguir los mismos es-

tuzte, baldin eta bi ikasturte titulazioan matrikulatu gabe egon badira.

3.– 1.2 paragrafoan deskribatutako egoeran aurkitzen diren ikasleek beste titulu bateko ikasketak egin ahal izango dituzte; horretarako, Gobernu Kontseiluak aintzat hartuko ditu, Unibertsitateko tituluetan parte hartzeko prozedurak arautzeko legeriaren arabera, ikasturte bakoitzerako onesten dituen tokien balorazio- eta adjudikazio-irizpideak. Hala ere, bigarren titulu horretan ere 1.1 paragrafoan xedatutakoa betetzen ez bada, orduan ezin izango dituzte ikasketak EHUn egin, bi ikasturte EHUn matrikulatu gabe egoten ez diren bitartean.

***2. artikulua.–*** Irakasgai bakoitzerako eta horiei uko egiteko deialdiak.

1.– Ikasleek azterketa egiteko sei deialdi izango dituzte irakasgai bakoitzean.

2.– Behin irakasgai bateko sei deialdiak agortuta, ikasleek salbuespeneko deialdi baten idatzizko eskaera egin diezaiokete EHUko errektoreari.

Salbuespeneko deialdia emateko erabakia EHUko errektoreari dagokio, eta, ondore horietarako, ikasleen ikasketa-espedientea eta beste inguruabar batzuk baloratu beharko ditu.

3.– Deialdi bakoitzean azterketa egiteko duten eskubideari uko egiten badiote, hori ez da zenbatuko.

4.– Azterketa egiteko eskubideari uko egiteko nahikoa izango da azterketara ez agertzea.

5.– Bosgarren, seigarren eta salbuespeneko deialdietako azterketak auzitegi batek epaituko ditu, Gobernu Kontseiluak ezarri arauen arabera.

Zentro guztietan, eta bosgarren, seigarren edo salbuespeneko deialdian dauden ikasleen irakasgai bakoitzari dagokionez, aurreko paragrafoan adierazitako auzitegia eratuko da; izenen zerrenda jendaurrean agertuko da ikasturtearen lehenengo hiruhilekoan.

6.– Irakasgai bateko deialdi guztiak agortu ondoren, ukitutako ikasleek ezin izango dituzte amaitu unibertsitate honetan egiten ari diren ikasketak; horretarako, EHUn bi ikasturte matrikulatu gabe egon behar dira.

7.– Matrikulazio berria dekanoari edo zuzendariari eskatu behar zaio, eta horrek sei deialdi berri emateko erabakia hartuko du deialdi guztiak agortu dituen ikaslearen irakasgaiari begira.

***3. artikulua.–*** Egoera bereziak.

1. artikulua ez da aplikatuko hurrengo inguruabarretatik bat jasan duten ikasleen kasuan:

tudios si durante dos años académicos hubiera permanecido sin matricularse en la titulación.

3.– El alumnado que se encuentre en la situación descrita en el apartado 1.2 podrá iniciar estudios conducentes a otra titulación, sometiéndose a los criterios de valoración y adjudicación de plazas que para cada curso académico aprueba el Consejo de Gobierno en desarrollo de la legislación que regula los procedimientos para el ingreso en las titulaciones universitarias. En el supuesto de que en esa segunda titulación no cumpliera lo dispuesto en el apartado 1.1., no podrá cursar estudios en la UPV/EHU hasta permanecer dos cursos académicos sin matricularse en la UPV/EHU.

***Artículo 2.–*** Convocatorias para cada asignatura y renuncias.

1.– El alumnado dispondrá de seis convocatorias de examen para cada asignatura.

2.– Agotadas las seis convocatorias de una asignatura, el alumnado podrá solicitar la concesión de una convocatoria excepcional en escrito dirigido a la Rectora o Rector de la UPV/EHU.

La decisión sobre la concesión o no de la convocatoria excepcional corresponderá a la Rectora o Rector de la UPV/EHU que deberá, a tales efectos, valorar el expediente académico y otras circunstancias del alumnado.

3.– La renuncia al derecho de examen en cada convocatoria implica la no contabilización de la misma.

4.– Para renunciar al derecho de examen, bastará no presentarse al mismo.

5.– Los exámenes correspondientes a las convocatorias quinta, sexta y excepcional se juzgarán por un tribunal de acuerdo con las normas que establezca el Consejo de Gobierno.

En todos los centros, y para cada asignatura en que haya estudiantes con quinta, sexta o convocatoria excepcional, se constituirá el tribunal indicado en el párrafo precedente y se hará pública su composición nominal en el primer trimestre del curso.

6.– Agotadas las convocatorias de una asignatura, el alumnado afectado no podrá proseguir los mismos estudios que ha venido cursando en esta Universidad hasta que haya permanecido dos cursos académicos sin matricularse en la UPV/EHU.

7.– Se deberá solicitar la nueva matriculación ante la Decana, Decano, Directora o Director, quien resolverá afirmativamente concediendo seis nuevas convocatorias en la asignatura en la que el alumnado hubiera consumido las convocatorias.

***Artículo 3.–*** Situaciones especiales.

El artículo 1 no será de aplicación al alumnado en tanto se encuentren en alguna de las situaciones siguientes:

Ikastorduen hiruhileko bat baino gehiago gaixorik egotea, hori behar bezala egiaztatuta.

Balorazio objektiboko beste inguruabar batzuk.

Halako inguruabarren aurkako alegazioak zentroko idazkaritzan aurkeztu behar dira, eta bertako dekanoari edo zuzendariari zuzenduko zaizkio horrek aurkeztutako eskabidearen ebazpena eman dezan.

*4. artikulua.–* Beste unibertsitateko edo EHUko beste zentro batzuetako ikasleak lekualdatzea.

Ikasleek, ikasketak EHUko beste zentro batean egin nahi izanez gero, edo unibertsitate honetan beste unibertsitate batean hasitako irakaskuntza berdinak egin nahi baditu, betiere jatorrizko unibertsitateko Iraunkortasunari buruzko arauketa agortu gabe, orduan agortutako deialdiak arauketa honetan jasotako irizpideen arabera zenbatuko dira, baina, edozein kasutan ere, lekualdatu diren pertsona onartuen kasuan, gutxienez, bi deialdi izateko bermea izango dute.

*5. artikulua.–* Matrikula deuseztatzea.

1.– Matrikularen deuseztapenak, aurretiaz ikasleek hala eskatuta, eta iraunkortasunaren ondoreetarako, ikaslea matrikulatu gabe sortzen den egoera bera eragingo du.

2.– Ikasleek matrikula urte bakoitzaren abenduaren 31 arte deuseztatzeko aukera izango dute.

3.– EHUko Unibertsitateak deuseztapena ofizioz egingo du, baldin eta ikasleek matrikula egiteko beharrezkoak diren betekizunetatik bat betetzen ez badute, eta, matrikularen zenbatekoa ezarritako epeetan ordaindu ez badute.

*6. artikulua.–* Ikasketa-espedientean egindako idatz-oharra.

Bi ikasturte EHUn matrikulatu gabe iraun ostean, inguruabar hori agertuko da ikasketak egiten hasten diren ikasleen ikasketa-espedientean.

*7. artikulua.–* Prozedura.

1.– Arau horiek betetzearen ondorioz egindako edozein eskaera, 2.5 artikuluan ezarritakoa izan ezik, lehenengo eta behin dekanoarengana edo zuzendariarengana zuzendu behar da, eta horren inguruan emandako ebazpenaren aurka errekurtsoa jarri ahal izango da erretorearen aurrean.

2.– Arauketa honetan jaso ez den gainerakoan, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legea aplikatuko da.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Iraunkortasunari buruzko arauketan jasotako 1. artikulua aplikatzearen ondorioz EHUko ikasketak utzi behar izan dituzten ikasleei dagokienez, aintzat hartu beharko dira hurrengo puntuak:

Enfermedad prolongada durante más de un trimestre lectivo, debidamente justificada.

Otras situaciones de valoración objetiva.

La alegación de cualquiera de estas circunstancias deberá presentarse en la secretaría del centro, dirigida a la Decana, Decano, Directora o Director del mismo quien resolverá la solicitud presentada.

*Artículo 4.–* Traslado de estudiantes de otras universidades o de otros centros de la UPV/EHU.

Al alumnado que desee continuar los mismos estudios en diferente centro de la UPV/EHU o al que prosiga en esta universidad las mismas enseñanzas iniciadas en otra universidad en la que no haya agotado la Normativa de Permanencia de la universidad de procedencia, se le computará las convocatorias agotadas según los criterios de la presente normativa, aunque en todo caso, a las personas trasladadas admitidas, se les garantizará al menos dos convocatorias.

*Artículo 5.–* Anulación de matrícula.

1.– La anulación de matrícula, previa solicitud del alumnado, tendrá a efectos de permanencia la misma consideración que si el estudiante no se hubiera matriculado.

2.– El alumnado podrá anular la matrícula hasta el 31 de diciembre de cada año.

3.– La anulación se efectuará de oficio por la UPV/EHU cuando el alumnado no reúna alguno de los requisitos necesarios para realizar la matrícula y cuando no haya hecho efectivo el precio de la matrícula dentro de los plazos establecidos.

*Artículo 6.–* Anotación en el expediente académico.

El expediente académico del alumnado que reinicie estudios después de permanecer los dos cursos académicos sin matricularse en UPV/EHU reflejará esta circunstancia.

*Artículo 7.–* Procedimiento.

1.– Cualquier petición derivada del cumplimiento de las presentes normas con excepción de lo previsto en el apartado 2.5 deberá dirigirse en primera instancia para ser resuelta a la Decana, Decano, Directora o Director, cuya resolución será recurrible en el término de un mes ante la Rectora o Rector.

2.– En lo no previsto en esta normativa, se aplicará al procedimiento las normas de la Ley de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

DISPOSICIÓN TRANSITORIA

Para el alumnado que tuvo que abandonar los estudios universitarios en la UPV/EHU por aplicación del artículo 1 de la anterior Normativa de Permanencia, se habrá de tener en cuenta lo siguiente:

Ezarritako gutxieneko ehunekoak eskuratu ez dituzten ikasleek euren ikasketak utzi behar izan badituzte, EHUn bi ikasturte matrikulatu gabe egon ostean, titulu horren gaineko erantzukizuna duen zentroan berriro sartzeko eskaera egin beharko dute. Halaber, zuzendaritzak edo dekanotzak hori erabakiko du zentroak espedienteen lekualdaketak ebazteko aurretiaz ezarri irizpide objektiboen arabera.

Ikasketak bi aldiz hasi ondoren ikasketok egiteari utzi behar izateaz gain, EHUn bi ikasturte matrikulatu gabe egon diren ikasleen kasuan, berriro ere izena eman beharko dute izaera orokorrarekin ezarri data eta epeetan. Modu horretan, berdintasun osoko egoera egongo da sarrera berria izan duten ikasleei begira.

Ikasleek azterketa egiteko eskubideari dagozkion deialdi guztiak agortu badituzte, aipatu bi ikasturteak igaro ondoren, horiek modu automatikoan onartuko dira aipatu irakaskuntzetan, betiere aurretiaz ondore horretarako zentroko dekanoari edo zuzendariari eskaera eginda, eta horrek eskaeraren ebazpena emango du. Ikasle horiek azterketa egiteko sei deialdi izango dituzte.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Arauketa honen bitartez, EHUko Gizarte Kontseiluak 1993ko uztailaren 8an Iraunkortasunari buruz onetsitako arauketa eta hori garatzeko xedapenak indargabetu ditu.

AZKEN XEDAPENAK

***Lehenengoa.–*** Iraunkortasunari buruzko arau hauek 2005-2006 ikasturtetik aurrera jarriko dira indarrean.

***Bigarrena.–*** Errektoreak arauketa honen emaitza eta aplikazioari buruzko informazioa urtero emango dio Gizarte Kontseiluari.».

Eta horrela ager dadin, Akta oraindik onetsi gabe dagoela ohartarazirik, ziurtagiri hau eman dut Kontseiluburuaren aginduz, eta berak ontzat eman du, Bilbon, bi mila eta bosteko abenduaren hogeita hiruan.

Idazkari nagusia,
M.ª PILAR ELORRIETA SANTOS.

O.I.
Kontseiluburua,
JOSÉ MENDIA URKIOLA.

Respecto a las personas que quieran continuar los mismos estudios que tuvieron que abandonar por no alcanzar los porcentajes mínimos establecidos, transcurridos dos cursos académicos sin matricularse en la UPV/EHU deberán solicitar el reingreso en el centro responsable de la titulación. La Dirección o Decanato del centro resolverá de conformidad a los criterios objetivos predeterminados por el centro para la resolución de los traslados de expediente.

Respecto a las personas que quieran comenzar una tercera titulación tras haber tenido que abandonar los estudios iniciados por dos veces y transcurridos dos cursos académicos sin matricularse en la UPV/EHU deberán realizar nueva preinscripción en las fechas y plazos establecidos con carácter general. A este nivel se considerarán en plena igualdad con los estudiantes de nuevo acceso.

Para el alumnado que tuvo que abandonar las enseñanzas por haber agotado las convocatorias a las que el alumnado tenía derecho, transcurridos los dos cursos académicos, será admitido de forma automática en las citadas enseñanzas, previa solicitud realizada a tal efecto ante la Decana, Decano, Directora o Director del centro, que es quien resolverá la solicitud. Estos estudiantes dispondrán de seis convocatorias de examen.

DISPOSICIÓN DEROGATORIA

La presente Normativa deroga la Normativa de Permanencia aprobada por Acuerdo del Consejo Social de la UPV/EHU de 8 de julio de 1993, así como las disposiciones de desarrollo.

DISPOSICIONES FINALES

***Primera.–*** Las presentes normas de permanencia entrarán en vigor a partir del Curso 2005-2006.

***Segunda.–*** La Rectora o el Rector informará al Consejo Social anualmente de los resultados y aplicación de la presente normativa.».

Y para que conste, con la reserva de que el Acta todavía no ha sido aprobada, expido la presente, de orden y con el visto bueno del Presidente, en Bilbao a veintitrés de diciembre de dos mil cinco.

La Secretaria General,
M.ª PILAR ELORRIETA SANTOS.

V.º B.º
El Presidente,
JOSÉ MENDIA URKIOLA.